

## 7. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: Ikaskuntza aktiborako metodoak

Praktika mota: Kontzeptuala

Ondorengo gaietatik bat aukeratu (zure intereseko gaia delako, gutxi dakizulako, entzuna duzulako, asko dakizulako edo beste arrazoi batzuegatik...), eta ikerketa txiki bat aukeratutako gaiari buruz egin ezazu.

Gaur egun, irakasleak honako irakaskuntza-ikaskuntza metodo hauetan trebatzen ari dira:

- Ikaskuntza kooperatiboa
- Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza
- Arazoetan oinarritutako ikaskuntza
- Ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa
- Ikaskuntza dialogikoa
- Gela iraulia
- Gamifikazioa
- ...

Goiko gaietatik bat aukeratu eta informazioa bilatu. Iradokizun gisa, ordenatu informazioa galdera hauei jarraituz:

- ✓ Zein da metodoaren helburua?
- ✓ Zeintzuk dira ezaugarriak?
- ✓ Zeintzuk dira eman beharreko pausuak metodoa ikasgelan aplikatzeko?
- ✓ Zein da irakaslearen papera?
- ✓ Zeintzuk dira ondorioak?

## ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Aukeratutako gaia Ikaskuntza Kooperatiboa da.

Ikaskuntza eredu indibidualista eta konpetitibo baten aurrean taldeko lana planteatzen duen eredu bat da, norbanako bakoitzak bere eta gainerakoen ikaskuntza hobetzeko.

- *Ikaskuntza kooperatiboaren helburua eta ezaugarriak*

Johnson, Johnson eta Holubec-en ikasketa kooperatiboaren definiziotik abiatuta eta Kagan-en ekarpenak aintzat hartuta, ikasketa kooperatiboa ikasle talde txikien -osaketa heterogeneokoak gehienetan, errendimenduari eta ahalmenari dagokienez- erabilpen didaktikoa da eta, jardueraren egitura horren bitartez, honako hauek bilatzen dira: *berdintasunezko parte-hartzea* ahalik eta gehien ziurtatzea (taldekide guztiek parte hartzeko aukera berdinak izan ditzaten) eta berorien arteko *aldibereko elkarreragina* indartzea, taldean lan egiten ikasteaz gainera, taldekide guztiek proposatutako edukiak ikas ditzaten, norberaren ahalmenak neurri gorenera eramanez (hemen aipatuta: Pujolás eta Lago, 2011).

Definizio honetatik, ondorengo alderdiok nabarmen daitezke:

- Ikasketa kooperatiboko talde bateko kideek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak irakatsitakoa norberak ikastea eta taldekideek ere ikas dezaten laguntzea.
- Irakasleek, berriz, bi xedetarako erabiltzen dute ikasketa kooperatiboa: ikasleek eskolako edukiak ikas ditzaten eta, aldi berean, taldean lan egiten eta solidario izaten ikas dezaten, azken bi horiek eskolako eduki gisa hartuta. Alegia, ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi...
- **Kontua ez da ikasgela bateko ikasleek, noizik behin, «talde-lan» bat egitea, baizik eta, era egonkorragoan, «lantaldeetan» antolatuta egotea, batik bat,** elkarrekin ikasteko eta, aldi behin, hala egokitzen bada, guztien artean lan bat egiteko.
- Ikasketa kooperatiboa ez da soilik eskolako edukiak hobeto ikasteko metodo edo baliabide bereziki baliagarri bat, baizik eta ikasleek ikasi beharreko curriculum eduki bat gehiago, hau da irakatsi behar zaien ikasgai bat.

Bestalde, ikasketa kooperatiboari emandako definiziotik ondorioztatzen da proposatutako jarduerak ikasleek taldean, guztien artean eta ez banaka lantzeko kontsigna hutsa ez dela, inondik ere, nahikoa. Eskuarki, hala jokatzeko denean, ikasle bat aurreratu ohi da eta hark esaten die besteei zer eta nola egin behar den, kasurik onenean, eta, okerreanean, berriz, berak egiten du eta kopiatzen uzten die gainerakoei. Zerbait taldean egiteko eskatzen zaienean, ikasleek sarri erabili ohi duten beste estrategia bat lana ahalik eta modu orekatuenean banatzea izan ohi da eta, ondoren, nor bere zatia egitea (Pujolás eta Lago, 2011).

- *Ikaskuntza kooperatiboaren ezaugarriak*

Ondorengo ezaugarriak nabarmentzen dira (Johnson et al., 1999):

➤ **Interdependentzia positiboa.** Taldekide bakoitzak ardura bikoitza du: ezarritako lana egitea eta gainerako kideek egiten dutela ikustea. Taldekide bakoitzak ezinbesteko ekarpenak egiten ditu, denen esfortzua behar da.

- Elkarren arteko laguntza ematen duten elkarrekintzak. Taldekideen artean ezartzen diren elkarrekintzan, elkar animatu eta lagundu, lanak osatzeko... Kideek elkar kontsultatzen dute, baliabideak partekatu, aldaketak proposatu... ardura, interes, errespetu eta konfiantza giro batean.
- Norbanako bakoitzaren ardura. Taldekide bakoitza egiten duen lanaren arduraduna da. Horretarako, beharrezkoa izango da bakoitzaren ekarpenak garrantzitsuak izatea, azken helburua lor dezaten. Gomendagarria da talde txikietan lan egitea, non kontrol indibidualak ematen diren lanak bukatzean, bakoitzak bere lana eta taldearena aurkezteko. Gomendagarria da ere dena behatu eta kontrolatzen duen pertsona bat ezartzea, denek beren lana egin dutela eta informazioa ulertu dutela egiaztatzeko.
- Pertsonen arteko trebetasunak eta gizarte abileziak. Ikasleak haien artean ezagutu eta konfiantza hartzea lortu nahi da, modu egoki batean komunikatzea, besteen laguntza onartzea eta besteei laguntza eskaintzea eta gatazkak modu erikitzailere batean konpontzea.
- Talde funtzionamenduaren inguruko etengabeko autoebaluazioa. Ikasleek hausnarketarako espazio bat izatea, taldean eta klase osoan lana nola aurrera eraman den baloratzeko, zein ekarpen izan diren erabilgarri eta zeintzuk ez, zein jarrera indartu behar den edo zein ez...

- *Gelako ikasketa modu kooperatiboan egituratzeko esku-hartze eremuak*

Edozein hezkuntza erakundetan, oro har (ez bakarrik eskolan), jardueraren egitura indibidualista edo lehiakorretik egitura kooperatibora igarotzeko eta hortaz, erakunde horretako parte-hartzaileek elkarrekin lan egiteaz gain ahalik eta garapen pertsonal eta sozial handiena lortzeko lankidetzan aritzeko, hori ahalbidetuko diguten baliabide didaktikoak bilatu, garatu eta egokitu behar ditugu.


Baliabide didaktikoak hiru esku-hartze eremuren inguruan artikulatzen dira (**Pujolàs, 2008; Pujolàs eta Lago, 2011**):

A) esku-hartze eremuak taldearen kohesioarekin loturiko jardun guztiak biltzen ditu, pixkanaka, gela bateko ikasleek talde-kontzientzia har dezaten eta denborarekin ikasketa-komunitate txiki bilaka daitezten. Esku-hartze eremu hau behin eta berriz azpimarratu behar da. Taldearen kohesioa inoiz alde batera utzi behar ez den alderdia da, edozein unetan sor baitaitezke gelako giroa nahas dezaketen arazoak edo zailtasunak, eta ondorioz, giro egokiago bat sortzea eskatzen dutenak (ikus irudia 1).

B) esku-hartze eremuak bere baitan hartzen ditu ikasteko baliabide gisa talde-lana erabiltzen duten jardunak, horrela lan eginda, hurrek hobeto ikas ditzaten eskolako edukiak, elkarri laguntzen diotelako.

Noizean behin modu kooperatiboan antolatutako jarduerak egitea neurri interesgarria da ikasketa kooperatiboa txertatzeko, baina jarduera antolatze modu horrek ikasleei ematen dizkien onurak lortzeko, ikasgela sarriago antolatu beharra dago modu kooperatiboan. Hori horrela izanik, ikasketa jardueraren bat gauzatzerakoan noizean behin egitura kooperatiboren bat aplikatzeak irakasleek egitura horiekin konfiantza hartzen eta gero eta gehiago erabiltzen lagun dezake. Irakasleek egitura horiek gero eta ziurtasun handiagoarekin erabiltzen dituzten heinean, gerta litekeena da unitate didaktikoak haietako batzuk elkarri lotuta antolatzen amaitzea (ikus irudia 1).

C) Talde-lana irakasteko baliabide bat izateaz gain irakatsi beharreko edukia dela ulertuta, C esku-hartze eremuak ikasleei taldean lan egiten modu esplizituan eta sistematikoan irakasteko eta gelako saioak horrela antolatzeko jarduerak biltzen ditu. Hori horrela dela, curriculumaren hainbat arlotatik, ikasleei modu egituratuagoan irakatsi behar zaie taldean lan egiten, talde-lana irakasteko baliabide gisa erabiltzeari utzi gabe. Horrela, ikasleek beste hainbat oinarriko gaitasun praktikatzeko eta garatzeko aukera jarraitua eta normalizatua izango dute (ez behartua), batez ere komunikazioarekin loturikoak. Helburu horrekin, Taldearen Planak eta Taldearen Koadernoak aurrera eramaten dira (ikus irudia 1).



Irudia 1. Hiru esku-hartze eremuak.  
Iturria: Pujolás eta Lago, 2011.

- *Elkarlanerako zenbait adibide*

Hona hemen Coelho-k (1998) egiten dituen proposamen batzuk:

- *Berdinen arteko tutoretza.* Ezagutza eta gaitasun desberdinak dituzten ikasleak parekatzen dituen teknika da, helburu jakin eta partekatu bat lortzeko. Harreman desorekatua da, eta pertsonetako bat tutorea da, eta bestea tutoretza jasotzen duena.
- *Puzlea.* Taldekoko kide bakoitzak zeregina betetzeko behar duen informazioaren zati bat dauka, "espezialista" bihurtzen da gaiaren zati batean. Ezagutza horiek gainerakoekin partekatzea da helburua, pertsona guztien ekarpenekin lana osatzeko.
- *Rol-jokoak (Role-play).* Proposamen honen barruan praktikan jartzeko aukera ugari dago. Ohikoena klasea bi taldetan banatzea da, eskola- zein gizarte-izaerako neurri polemiko jakin baten alde edo aurka dagoela adierazteko. Taldeka, aldeko eta kontrako iritzien zerranda egin beharko

dute, betiere esleitu zaien ikuspuntua mantenduz, norberaren ideiak edozein direla ere.

- *Ikerketa-taldeak.* Gai orokor bat iradokitzen da, eta horri buruz lan bat egin behar da. Taldekide bakoitzak azpi-gai bat aukeratzen du, gainerakoen onespenerekin lantzeko. Taldeak osatzen dira, ataza antolatzen da eta lana egiten da. Ondoren, onartu edo aldatu egiten da, talde handian bateratu aurretik.

#### - Ondorioak

Lan kooperatiboa irakasteko eta ikasteko lana ulertzeko modu bat da, eta ikasleak bere ikaskuntza-prozesuaren arduradun eta protagonista gisa duen zeregina azpimarratzen du. Horrela ulertzen du ardura hartzen dutenek gehiago ikasten dutela eta pertsonak komunitatean eta elkarrekintza etengabe ikasten dutela. Garrantzitsua da, beraz, ikaskuntza hori ahalik eta aberatsena eta eraginkorra izan dadin behar diren baldintzak eskaintzea, eta hori lortzeko, era guztietako taldekatzeak egin behar dira eta askotariko solaskideekin elkarrekin ugari egon behar dira. Lan kooperatiboa, halaber, modu sakonagoan parte hartzen duten gainerako pertsonak ezagutzeko bidea da, berdintasunezko eta elkartasunezko beste harreman mota batzuk ezarriz. Bereziki egokia da ikasgela batean oso talde desberdinak daudenean eta elkarrekin harreman gutxi dutenean.

#### - Erreferentzia bibliografikoak

- Coelho, E. (1998). *Teaching and learning in multicultural schools. Multilingual Matters*. Clevedon.
- Johnson, D. W., Johnson, R. T. eta Holubec, E. J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. **Paidós**.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning*. Resources for Teachers, Inc.
- Pujolàs, P.**, eta Lago, J.R. (2011). *Aprender en equipos de aprendizaje cooperativo*. Octaedro.
- Pujolàs, P. (2008)**. *Nueve ideas clave. El aprendizaje cooperativo*. **Graó**.